



Loroño txirrindularia

Txirrindulariak beti izan dira Bizkaian eta Naparra zan Indurain aundia be maite izan dogu, baiña gure gaztaroan txirrindulari on bat gendun Bizkaian: Jesus Loroño Larrabetzuarra eta onegaz batera norgeiago bizian ibiltzen zan Bahamontes.

Begiratu dagiogun gure Loroño'ri.

Baserritik podium'era bide luzea eta sendoa eukan eta bide onek pozgarri eta aintzatsua egin eban gure Loroño'n. Telebistarik ez egoan aldi estu aretan, aundi agertu jakun Loroño.

Larrabetzu'ko Goikolea baserrian jaio zan 1925n. urtean. Urte aretan txarleston zan dantzea eta ari baten bidez Bilbao eta Breña Aundia alkatu ebazan telefonika'k.

Ume-denporan etxean lan egiten eban gure Jesus'ek, errekan noizean bein eta udaldian uguztuten

zan, egunero eskolara joan, pelotara jokatu... baiña sei urte bete ebazenetik txirrindua zan bere gurari bizia. Langilleak lanean egozan bitartean alboan izten ebezan euren txirrinduak eta oneitarikoren bat artzen eban Jesus'ek eta kuadruaren barrutik ankea sartu bear izaten eban beste pedalarari eragiteko, baiña bera pozik bide zabaletan. Langilleak etorten ziranean entzun egin bear izaten eban: Ator ona, mutiko! Baiña berak jaramonik be ez.

Noizean bein sasi-eskola egiten eban. Baten bera eta lagun bat Bilbao'rantza joan ziran txirrinduetan, baiña bidean damutu egin ziran gauzak apur

bat pentsauta eta etxera biurtu ziran. Etxean ama egoan itxaroten bardeagaz.

11 urte bete ebazenean, agoa zabalik ikusten ebazan txirrindularien lasterketak eta inbidiz begiratzten eutson Julian Berrendero'ri. Baten oiñez joan zan Larrabetzu'tik Santo Domingo'ra, igoerea ikusteko. Federiko Ezkerra eldu zazpigarren. Baiña barruan irrika aundia eukan Loroño gaztetxuak txirrindularitzarako.

13 urte bete ebazenean emon eutsoen lenengo bizikletea edo txirrindua. Aren poza! Munduko erregalurik onena zan! Amak bein baiño geiagotan esaten eban semea izarditan ikusita: "Kendu egiozue txirrindu ori! Orrexek ilgo dau!".

Baiña Jesus'ek etxeko lanetan be sendo ekiten eban eta aita pozik eukan beragaz. Aitak Baskonia'n bear egiten eban artean beraketxeko soloetan lan eginda lortzen ebana aitaren irabaziagaz alkartzen zan. Dana bear!

Guda etorri zan zori txarrez! Eta etxean Gild anaiak itxasotik ekarrita eukan irratitik entzuten ebezan Dolores Ibarruri "La Pasionaria" ren berbaldiak, gudaren barriak, BBC ta olakoak. Damian osabeak ezin eban ulertu kutxa arek zelan berba egiten eban.

Guda zala-ta erbestera joan bear izan eben, "Burdinezko Garrikoa" (Cinturón de Hierro) urrean egoalako. Trasteak burdian artu eta Enkarterrira joan ziran. Sopuerta'n igaro ebezan iru illebeta. An txarto gure Loroño, erderarik be ez ekian-eta. Beci'n egon ziran eta militarrek etorri ziranean aldiak kendu eutseezan. Eurakaz joan zan Jesus guda-lekura eta an asto bat emon eutsoen zaldien truke. Gero 35 ogerlekoan saldu eben astoa.

Guda-ostean barriro Larrabetzu'ra. Etxea jauskor aurkitu eben eta 1939n, urtean bere iru anai eroan ebezan etxetik lan-lekuetara.. Gero batek Txile'ra iges egin bear izan eban eta dana abertzaleak ziralak: Osaba Juan alkate izan zan guda-aurrean eta bere toki baten batzokia egon zan.

1941n. urtean aita il jakon eta etxean irabazi barriak bear ziran: Etxean bear geiago, basoetan lan, piñuak botaten...

Eta txirrindua? Zer? Jesus'ek ibiltan jarraitu eban.

Lenengo ariñeketea Lemoa'n izan eban, 18 urtekoa zala, bere lagun baten txirrinduagaz au obea zalako. Berandu urreratu zan elmugara, idazkiak-



eta kentzen ebiltzala, ogetamar minutu beraduago, baiña ez zan biozkatu. Urrengoan obeto!

Lenengo ariñeketak Erletxeetan eta Larrabetzu'n izan ziran. Eguzkizaga bere laguna eldu zan aurretik.

1944n. urtean federatu egin zan eta pozik egoan. Frantze'ra joan zan eta diru apur bat euki ebanean txirrindu on bat erosi eban. Bere gorputza sendotzen joian,

1945n. urtean, berak 20 urte eukazala, txirrindulari ospetsua zan. Berriz'en irugarren egin eban, Lemoa'n be irugarren, Trapaga'n bostgarren...

Estu bizi zan. Goizeko 6'etan jagiten zan abereai jaten emoteko eta batera egunero ibilli eta ibilli...

1946n. urtean bere anaiak Txile'ra dei egin eutson eta joateko gertatu zan, baiña, zorionez, soldaduz-kea egin bear izan eban.

Santander'era joan zan gudari eta bere nagusiak ondo lagundu eutsoen txirrindulari izateko. Naran-ko'ra ariñeketa batera joateko baimena be emon eutsoen eta irabazi egin eban. Gaiñera 7000 pezeta emon eutsoezan.

1947n. urtean Irabazte asko lortu ebazan: Santo Domingo'n 8n, Arrate'n 7n, Amorebieta'n 5n...

España´ko itzulira lenengoz.

1948N. urtean Arantzazu´ra 3n. eldu zan Larrabetzu´n, Santurtze´n eta Santander´en lenengo egin eban.

VIII España´ren itzulia, taldean Dalmazio Langarika, Antonio Marti, Franzisko Masipeta Felix Bidairreta lagun ebazala,:20 egun gogorak izan ziran,4 090 km.,egunean 200, beroa, batez be Andalusia-aldean. Nagusi ziranak irabazi eben: Bernardo Ruiz lenengo, Emilio Rodriguez bigarren. Loroño 21n..

1949: Arrate, Amorebieta´n lenengo eta abar...

1950:10n. España´ri Itzulian.

1951-52: Urte txarrak izan ziran.

Mendietako errege

1953:Giro´an Kopi nagusi.Tour´ean Loroño mendietako errege! Jentea pozik eta dirua be ugariago.

1954:Urte orretan zori txarreko iztripua izan eban, Paris Roubaix bidean eta matrail-azurra apurtu eban, beste zauri asko. Jateko be txarto gaiso-etxean.

Sei ariñeketa irabazi ebazan. Eta urte orretan ezkondu egin zan. 1957: Urterik onena. Ekin eta ekin bidetan sendotzen eta ikasten. Emen asten da Loroño ta Bahamontes´en arteko norgeiagoa. España´ri itzulian Bahamontes baiño 8´11´´ lenago eldu zan. Tour´en asko alegindu zan, baiña Anketil lenengo. Volta: Irabazi egin eban 2n. lez, naizta galtzearren 75.000 pezeta eskiñi.



Tour´etik kanpo

Faema´k egin eutson dei bere ekipora sartzeko eta Jesus zerua ikusten geratu zan. Irabazia urtean 500 000 pezeta izango zan, gaiñera osterak eta bearrezko gaiak ordainduta.

Aprillaren 20-23 Eibar´eko Txirrindua irabazi eban beragaz taldean Bahamontes, Bernardo Ruiz, Company eta Botella zirala.

Aprillaren 30n. egunean España´ri itzulia: 100 txirrindulari.

Giro´ra:3343 km. 7n. egin eban.

Tour´era joatea gertatzeko Madrid´era joan zan baiña baldintza ipiñi eutsen Bahamontes buru izatea, besteak lagun-tzaille. Ezetza emon eban.

Izteko ordua

Tour´era joan ezakasko beeratu eban bere adorea.

1960n. urtean atzerantza egin eban. Sendia bururatzen jakon beti. Baiña ondo urten eban urte orretan. Azkenengo España-Itzulia ondamendi bat izan zan.

35 urte eukazan eta 1960n. urtean ama il jakon. Iru ariñeketa irabazi ebazan. Sendiaren ardurea eukiten eban txirrinduan joiala.

1961-62:Lenengoa izatea galtzen eban, baiña ondo.

37 urte aukazan eta amazazpi bizikletan igaroak.

Urrillaren 12´n agur! 18 España itzuli eta 3 giro eta 5 tour irabazita.

60 ariñeketa irabazi ebazan bere bizitzan. Orain be txirrinduan ibiltzen jarraitzen dau.

Beti ibilli zan Toledo´ko Arranoa eritxon Bahamontes´egaz norgeiagoan. Euren jarraitzailleak be alkarren aurka egozan.

OLAZAR´tar Martin´ek †

